

TOPONIMIA NAGUSIA NORMALIZATZEKO IRIZPIDEAK MINTZAGAI

Bilbo, 1999-VI-04

*Patxi Salaberri Zaratiegi,
euskaltzain urgazlea
eta Onomastika batzordekidea*

1. IKERKETA EGIN BEHARRA

Toponimo nagusiak finkatzeko orduan maiz ikerketa egin behar izaten dugu, anitzetan datuak ez baitaude irispidean. Hemen oraindik euskaldunak diren alderdiak eta hizkuntza galdu dutenak bereizi beharko ditugu lehenik, ez baita gauza bera, adibidez, Nafarroako Erdialdeko edo Araba Lauko —gaurdainoko “Lautada” da hau— ibar batez edo herri izen batez mintzatzea, irizpena ematea eta Gipuzkoako Goierri aldeko edo Bizkaiko Durangaldeko beste batez mintzatzea. Orobat erran daiteke Iparraldeaz

Eremu euskaldunaz ari bagara, datuak usu eskumenean izanen ditugu eta konponbidea, hein batean, jendearengana joan, galdetu, eta finkatu irizpide zenbaiten arabera erabakiak hartzea izanen da. Nolanahi ere, euskarak bizitu duen eta oraindik ere neurri batean —eskualdeen araberako kontua da hau, hein batez— bizi duen egoera ez-ofizialarengatik, bilakaera azkarra izan du, irakaskuntzako, administrazioko, komunikabideetako hizkuntza izatearen galga izan ez duelako, eta beraz, informatzaileek eman diezazkiguketan datuak aintzakotzat hartu behar badira ere, ezin dira beti lege izan.

Izenek maiz bukaerako *-a* berezkoa galdu dute, hizkera arrunteko hainbat hitzek bezala (*gauz bat, gauz bet/Donosti*), eta bortizki laburtu dira, aldameanean erdarazko izen oro har kontserbatzaileagoa baldin bazuten ere. Erraterako, *Olazti* edo *Otsagi* erraten zaie Nafarroan erdaraz *Olazagutia* edo *Ochagavía* deitzen diren herriei, eta ez bakarrik deitu; euskaldunok ere, mintzatzerakoan, *Oláztí* eta *Otsági* —edo *Otxági*— ibiltzen ditugu normalean eta lehena oraindik eremu euskaldunean egonik, erabat natural gertatzen zaie inguruetako euskaldunei. Bigarrenaren kasua bestelakoa da, euskaraz bakarrik zaharren batzuek egiten baitute. Baina honetaz aitzinago mintzatuko gara.

Hortaz, ahozko bilketa egin beharra dago, baina hau ez da aski. Honetaz gainera literaturaz baliatu behar gara, hemen maiz datu erabilgarri asko azal-

tzen direnez gero. Adibidez, Zaldibia eta inguru horretako herri izenen gaineko zalantza sortu zelarik Iztuetaren lanetara jo genuen, eta Nafarroan ere *Iruña/Iruña* pareak edo *Artzibar*-en izaerak sortzen zuten zalantza argitzeko Elkanoko Lizarragaren, Larrekoren eta besteren lanak baliatu genituen. Zernahi gisaz, literatura, edo zehazkiago erran, testu idatziak ere *cum mica salis* hartu beharrak dira, aitzinxeago ikusiko dugun moldean.

Ikerketa egiteko orduan beti interesgarria da, eta Euskal Herriko alderdi deseuskaldundu zabalean ezinbestekoa, artxibo lana egitea. Lan hau mantsoa, aspergarria, gogorra eta anitzetan eskertzarrekoa da, ordu asko sartu bai baina fruitua, emaitza, segurtaturik ez dagoelako. Ateratzen diren ondorioak, ordea, literaturatikakoak baino aise fidagarriagoak izaten dira, tartean kontuz tratatzeko diren datuak ere egonagatik. Konparazione, Oibar aldean jatorra zen *Zarebidea*-ekin batera *Sadabidea* odonimoa ere agertzen da, eta honelakoetan ikertzaileak bere buruari egiten dion galdera da *Sada* ere —erdarazko izena, izen ofizial bakarra— ez ote genuen euskaldunok erabiltzen garai batean, *Zare*-ekin batera. Hemen erabilera irizpidea ezarri nahi izaten dute batzuek, praktikoa izatearena, hau da, euskaldunok hori —*Sada*— ere erabiltzen genuenez, eta bide batez erdarazko izenarekin bat datorrenez, aukera dezagun *Sada* eta bazter dezagun *Zare*, zeren, irabazi, zer irabazten ote du euskarak bigarren forma hau erabiliaz? Hau gure ustez praktikotasuna gabe, “praktikokeria” da, mendetan euskaldunok erabilitako aldaerak baztertzea dakarrelako berekin.

Praktikotasuna aipatu baitugu, beharrezkoa da ikerketa egiteko orduan diruaz mintzatzea. Izan ere, normahik ezin du ikertzaile izan; horretarako preskakuntza behar da lehenik eta astia, astia franko, gero. Horregatik beka ateratzea, bekadunen bat hartzea oso komenigarria dela iruditzen zaigu, baina honetarako, jakina, sosa behar da. Gu orain toponimia nagusiaren normalizazioaz ari gara, baina oikonimoen kasua ere iruditsua da. Kontu egin dezagun, erraterako, herri batean etxe izenak normalizatu nahi direla. Hau egiteko lehenik bizirik dauden aldaerak bildu beharko dira —hau ez dateke sobera zaila, oikonimo biziak gehientsuenek ezagutzen baitituzte, neurri batean edo bestean—. Halere, artxiboak ere aztertu behar dira, adibidez, eta Iturengo oikonimoak dakartzagu hona (Iñigo, 1996: 534, 542), ezin baitira *Máixtamáttiá* edo *Xixtérnia* bere horretan eman. Hauen ordainez paper zaharretan aurkitzen ditugun *Mariestebanbaita* eta *Sastrearena*, *Sastrerena* edo *Sastrenea* aukeratu beharko dugu, finkatutako irizpide batzuen arabera. Beraz, dirua behar dela garbi dago; besterik da ordea diru hori nondik aterako den zehaztea.

2. NORMALIZAZIORAKO IRIZPIDEAK

Orain arte bi arazo inportante aipatu ditugu irizpideei dagokienez:

2.1. Aldaera herrikoi (arinki edo bortizki) laburtuen tratamendua.

2.2. “Praktikokeria” deitu duguna, erdarazko izenak euskararako proposatzea, jokabide hau praktikoago delakoan.

Arazo gehiago ere badira, baina ikus ditzagun bi hauek lehenbizi.

2.1. “Aldaera herrikoï” diot eta ez “izen herrikoï” normalean euskarazko izenak eta erdarazkoak toki beretik atera direlako, etimo beretik, bestelako kasuak ere badiren arren (cf. *Pamplona/Iruñea*, bigarren maila batean *San Sebastián/Donostia*, eta hirugarrenean *Vitoria/Gasteiz*). Hots, euskarazko izena erdarazko “bera” ohi da, baina eboluzionatuago egoten da, gorago erran bezala euskara hizkuntza ofiziala izan ez delako. Lehen aipatu ditugu *Olazti* (*Olazagutía* erdaraz) eta *Otsagi*, *Otxagi* (*Ochagavía* erdaraz), baina berdin aipa liteke, adibidez, Markinako auzoa den *Ziortza* (*Zenarruza*) edo beste edozein, izan aukeran baititugu honelakoak.

Gure iritzia garbi azalduko dugu: gu ez gara, maila ofizialean, aldaera laburtu horiek proposatzearen eta erabiltzearen aldekoak. Uste dugu kontserbatzaile jokatu behar dugula honelakoetan, pasatu gabe jakina, hau da, Erdi Aroko formetara itzuli gabe, baina azken orduko berrikeriak ere onartu gabe. Erraterako, guk uste dugu *Goizueta* izan behar duela Urumearen ertzeko herriaren izena, ez *Goizubieta* zaharkitua ez eta *Goizuta* herrikoia ere. Hemen, jakina hizkuntz mailaz mintzatu beharra dago, erregistroz, guri ez baitzaigu batere gaizki iruditzen goizuetarrek berek *Goizuta* ibiltzea etxean, lagun artean, herrian, eguneroko hizketan. Besterik da, ordea, inprimaki ofizialetan, bide seinaleetan eta abarretan zerk agertu behar duen zehaztea. Gure ustez, errana dugu, *Goizueta* da egokiena.

Olazti, *Otsagi* eta *Ziortza*-ren kasuak antzekoak dira. Hiru hauek jakina denez *Olazagutia*, *Otsagabia* eta *Zenarrutza* (> *Zearrutza*)-tik atera dira, alegia, ez erdarazko formatik, baina bai honetatik hurbilago dagoen aldaeratik. Forma osoak aukeratzeko arrazoiak bi dira:

a) Forma laburtuak maiz ez zaizkio inongo arau fonologikori jarraiki, libreki eboluzionatu dute, halabarharreko bilakaera izan dute, maiz silaba bat baino gehiago galdu dutelarik: *Beute*, *Elgorgia*, *Ibizta*, *laurta*, *Sauta*... Hots, ez dago legerik aldaera hauen garapenean, anarkia da nagusi, azentuen eragina alde batera uzten badugu behinik behin.

Guztiz ere, laburketa prozesua zenbaitetan euskara mintzatuaren ohikoak diren gertakarien ondorio da: *Beskoitze* edo *Sohüta*, konparazio batera, bokal arteko dardarkari bakunaren galtzearena lehen kasuan eta dardarkaria + aspiratua taldearen bilakaeraren emaitza dira, aldakuntza horien ondoko edo aldi bereko bokal bategitea ahortzi gabe. Borroka, gudua, galdua dugula badakigu, baina errateko aiherrak egon eta erran gabe ezin pasatu: gure ustean *Beraskoitz* eta *Sorhoeta* dira proposatu beharreko formak, hots, Leizarragak 1571n (*Beraskoitz* dio) eta Belapeirek ehun eta hogeita bost urte berantago zerabiltzaten formak. Bigarren honek darabilen *Zuberoa* forma, grafiak grafia, da hain zuzen

ere egun batuan onartzen dena, eta hau horrela bada —arrazoi gehiago ere badirateke, autoreen lekukotasun beranduagokoak eta— ez da garbi ikusten zergatik hautetsi behar den, beste aldetik, *Sohiuta* eboluzionatua.

Badakigu toponimoen normalizazioa eta matematikak jakite desberdinak direla, baina ahal delarik irizpide bera ezarri beharko dugu kasu batean eta bestean. Bestalde, eta ohartzen gara hau galdera delikatu dela, Hegoaldean zentzuzko iruditzen zaizkigun irizpideak —ez formak— Iparraldean ez dira baliagarriak? Alegia, Hegoaldean gero eta gehiago forma osoen alde egiten bada, Iparraldean zergatik hobetsi behar ditugu aldaera laburtu tradizio handirik gabeak? Erantzuna ezaguna dugu: Iparraldeko euskararen egoera tamalgarria da, hitzunek ez lukete jasanen horrelako normalizazio bortitza, aski baitute orain dituzten gaitzekin, etab. Nafarroako euskararen egoera ere ez da kontent egoteko modukoa, baina onartu da forma osoaren irizpidea eta orain arte ez da deus berezirik gertatu.

b) Euskarazko forma osotuagoak erdarazko aldaeratik hurbilago egoten dira, Hegoaldean bederen, eta hau, praktikotasunari begira, mesedegarria da beti. *Olazti/Olatzagutia*-ren kasuan zalantzan egon gaitzeko Vasconcearen legeko “formas sensiblemente diferentes” ote diren, baina euskarazko aldaeratzat *Olatzagutia* -a hartzen bada garbi dago forma bakarra eman behar dela, ez bi, hots, ez dago dudarako tokirik.

Kontua da orain arte egin diren normalizazio saioetan *Olazti* eta *Otsagi*-ren tankerakoak proposatu direla, bigarren mailan besterik ez bada ere (*NHI*-n, erraterako), eta estatus berezia dutela pentsatzen dela, *Beute*-k, *Elgorgia*-k edo *Ibizta*-k ez bezala. Guk ez dugu batzuen eta besteen alderik ikusten, eta *Otsagi* onartzen bada, zergatik ez da ibar bereko *Ibizta* onartu behar, adibidez?, eta *Olazti* ontzat hartzen bada, zergatik ez *Altsu* (*Altsasu*-ren partez) edo *Urdin* (*Urdiain*-en ordez)? *Otsagabia* -a eta *Olatzagutia* -a forma osoek duketen arazoa bukaerako -a hori izan daiteke, Mitxelena erraten duen bezala, euskarazko aldaerek -a eskas ohi baitute, erdarazkoek -a agertzen duten bitartean. Honela zioen errenteriarrek *Iruñea*, *Iruñe* pareaz ari zelarik:

“Bai *Iruñea* eta bai *Iruñe* zabalduak badira, eta nolazpait ere elkarren kideak, bada bide aski eroso bat besteari lotzeko eta uztartzeko. Gauza jakina baita Euskal herriko izen propioak maiz agertu ohi direla noiz artikulatu itxurako -a itsatsirik daramatela, noiz hori gabe. Erdal formek sarritan dute euskarazkoek ez duten -a: esate baterako *Altsasu* (*Altsu* Urdiainen, Satrustegi adiskideak esan zidanez eta cf. *freyre Semeno de Alssasso*, 1288): *Alsasua*, *Bakaiku* (cf. *don S. Remiriz de Vacaicu*, 1226, Utergan): *Bacaicoa*, *Olazti*: *Olazagutia* (*Olaçagutia* XIV mendean, ez -goitia!), *Otsagi*: *Ochagavia* (*Oxssagauia* eta horren gisakoak XI. mendean geroz), eta abar. Baztanen *Eluete* (*Eluate* lehen) eta *Elbetea* (...)” (Mitxelena, 1987 [1983], 192).

Guk uste dugu Mitxelena hor aipatzen dituen izen guztiak ez direla maila berekoak, batzuk (*Bakaiku*, *Elbete*) “artikulatu itxurako -a”-rik gabe azaltzen baitira dokumentazioan —badira salbuespen diren lekukotasunak, alabaina—, eta

beste batzuk berriz *-a*-rekin (*Otsagabia*, *Olatzagutia*). Beraz, bi izen hauek kendu-utzizko *-a*-rekin normalizatzea dokumentazioan azaltzen denarekin bat egitea da, *Bakaiku* eta *Elbete*-ren kasuan bezala. Hemen pixka bat aparte geditzen zaiguna *Altsasu* da, agirietan ia beti, Mitxelenaren lekukoa gora-behera, *-a*-rekin aurkitzen baitugu (ikus *NHI*). Nolanahi ere, kontuan hartu beharra dago errenteriarrek *Iruñea/Iruña* aztertzen ari delarik dioen bezala, ditugun testigantza horiek erdal testuingurukoak direla, eta oro har euskal usadioarekin bat heldu eta fidagarriak direla irudi badu ere, ez dutela beti nahitaez horrela izan behar.

Hauetatik bereizi behar dira, eta erabat bereizi gainera, Euskal Herrian oso zabaldua egon den arau fonologiko bati jarraikiz gertatu diren aldaketan fruituak. Errate baterako, bokal arteko sudurkariaren galera, *Galdakao*, *Laukiz*, *Lazkao* edo *Dorrao*-n duguna, ezin da desitxuraketatzat jo, ez eta bilakaera anarkikotzat ere. Kasu berean dago lehen aipatu dugun *Ziortza* —hau da izen ofiziala— sudurkaria galtzen duen aldetik, dudarik gabe *Zearrutza*-ren itxuragabetzea besterik ez baita, baina oraingoan —desegokiro gure ustean— forma desitxuratuxea eman da ontzat. Berdin erran daiteke, bukaerako-bokalak ixteko edo itxi mantentzeko euskaraz dagoen joeraz, diptongoen tratamenduaz, bokal protetikoen galtzeaz eta bestez (cf. *Atallu/Atallo*, *Errezu/Riezu*, *Erri-pa/Ripa*, *Erronkari/Ronkal*, *Galozte/Gallués*, *Irunberri/Lumbier*...). Alegia, alde batean ezarri behar dira legerik gabeko laburtze(bortitz)ak eta beste aldean hizkuntzaren joera zabaldu eta zahar baten ondorio diren aldakuntzak.

2.2. Honekin loturik dago bigarren irizpidea, praktikokeriarena deitu duguna. Zenbaitek gorago aipatu forma eboluzionatu horiek —edo horietako batzuk, hobeki erran— onartzen dituzte, baina gero galdegiten dute ea zer delata ontzat hartu behar dituzten bokal arteko sudurkaririk gabeko formak edo bukaeran *-tz* dutenak, erdarazko aldaeratik urruntzen direnak, askoz praktikoa-goa litzatekeelarik *Taxoare* edo *Olkotz*-en partez erdaraz ere —itxurak itxura— ibiltzen diren *Tajonar* eta *Olkoz* erabiltzea. Galdera hau beste batekin osatzen dute: zer irabazten du euskarak *Tajonar* eta *Olkoz* erabiltzeko partez *Taxoare* eta *Olkotz* erabiltzearekin? Lehen galderari erantzuna eman diogula uste dugu; bigarrenari berriz beste galdera batekin erantzun dakioke: eta zer irabazten du euskarak *Pamplona* edo *San Sebastian* erabili ordez *Iruñea* edo *Donostia* erabiltzearekin? Erantzuna bistakoa da: euskaldunok tradizioz, menderik mende, erabili ditugun aldaerak erabili behar ditugu, eta ez ditugu, praktikokeria gaizki ulertu batengatik, erdarazko aldaerak onetsi behar.

Hemen zalantza batez ere euskara galdu duten alderdietako herrien ize-netan sortzen zaie, ez hainbeste euskara bizirik dagoen eskualdekoetan, baina ulertu behar da hainbat tokitan gure hizkuntzaren galera azkarra izan dela, eta testuetan eta artxiobotan gero eta gehiago azaltzen ari direla eremu deseuskaldunduan bokal arteko sudurkaria galdu eta txistukaridun afrikariak dituzten formak. Erraterako, guk orain hamar urte *NHI*-n *Ardanatz* normalizatu genuen

herri izena (Eguesibarkoa) *Ardach* moduan dokumentatu da gero Ardachabidea mikrotoponimo historikoan. Honetan hiru gauza interesgarri azaltzen zaizkigu:

a) Bokal arteko sudurkariaren galtzea. Hau erran gisa, arau orokorra da, eta euskara galdu duen —berriki samar galdu du, Elkano 1904an herri euskalduna zelako artean— Nafarroako alderdi batean kausitzen dugu. Beraz, beste alderdietan ageri den arau fonologikoa hemen ere indarrean egon zela dakusagu.

b) Bukaerako txistukaria afrikaria zela garbi erakusten digu *-ch* digrafoak. Hortaz, *NHI*-n analogiaz baliatu izana ez zen txorakeria izan, kasu honetan bederik.

c) Nafarroako eta bestetako hainbat lekutan oraindik egiten den moduan, adlatiboaren hondarkia, kontsonantez bukatutako izen berezietan, *-a* zen —edo izan zitekeen— Eguesibarren.

2.3. Tokian tokiko euskararen sarrera, toponimia normalizatzerakoan.

Gai delikatua da hau Nafarroa bezalako eremu zabal “nabar” batean, eta seguraski beste herrialdeetan ere antzeko zerbait izanen dugu, beste maila batean baldin bada ere. Nafarroako herrien normalizazioan (*NHI*-n) Erronkari eta Zaraitzuko herri izenei lehenik, eta Baztangoei gero, zuten berezitasuna aitortu zitzaizen, alegia, bertako ebakeraren arabera aldaerak onartu ziren, pittin bat osaturik zenbaitetan, baina bukaerak —hau ohi da gatazkatsuen— tokian tokikoak hartu ziren: *Almandoz*, *Arraioz*, *Orontze*, *Uztarroze...* baina *Alkotz*, *Iraizotz*, *Madotz...* Berdin bukaeratik kanpo ere: *Bidankoze* (ez *Bidangoze*), *Erronkari* (ez *Errongari*), baina *Esparza* halere, ez *Espartza* (Iruñerrian badago beste bat, eta hau izanen zen erabakigarria).

Aipatutako hiru ibar horietatik kanpo ere onartu dira tokiko zenbait ezaugarri, gehienbat herri horiek euskaldunak izan eta izenak euskaldunon artean franko erabiltzen direlako: *Arribe* (ez *Arriba*, hemen semantikak ere izan du zerikusia. Ikus beheitiago dioguna), *Arantza* (ez *Aranatz*) baina ez beti: *Aurtitz*, *Oitz*, ez bertan egiten den bezala *Aurtiz*, *Oiz...* Hemen hartu beharreko erabakia hau da: analogiari bide eman behar zaio ala tokian tokiko ezaugarriak lehenetsi behar dira? Soluzioa ez da beti begien bistakoa, eta normalizazio lanetan hautetsi ziren formek, egokienak ez izanagatik ere, bide egin dutela aintzat hartu beharra dago.

2.4. Gizarte kontuak: *Estella/Lizarra*, *Vitoria/Gasteiz...*

Herri izenen normalizazioa egiterakoan eskuarki irizpide linguistikoak erabiltzen ditugu, baina hizkuntzaz kanpoko kontuak ere aintzakotzat hartzekoak dira maiz, eta inoiz hizkuntz irizpideak eta bestelakoak elkarrekin errietan badabilta ere, ez dugu beste aterabiderik egina dagoena onartzea baizik, arestian erran bezala. Konparazioe, *Lizarra* zabaldu da *Estella*-ren euskarazko izentzat, nahiz Nafarroako euskaldunok —eta Arabakoek ere berdin, garai batean,

seguru aski— beti *Estella* (eta *Estellerria*) erran izan dugun. Berdin gertatzen da *Atarrabia/Villava* parearekin eta antzeko zerbait *Gasteiz/Vitoria* eta *Agurain/Salvatierra*-rekin. Aurreneko bi kasuetan euskarazko izenak —*Lizarra*, *Atarrabia*— bertako auzo baten eta etxe baten izena besterik ez dira, baina *Estella* eta *Villaba* erdaratikakoak direnez gero, herriaren zati bat, modu batera edo bestera, eta ez osotasuna izendatzen zuen izena hobetsi da.

Villaba-ren kasua Gipuzkoako *Billabona*-renaren antzekoa da: etimoa erdalduna da bi kasuetan, baina izenok jaso duten tratamendua, izan duten bilakaera euskarazkoa da, eta ez genuke inolako beldurrik izan behar ontzat hartu eta euskal grafiaz idazteko. *Vitoria/Gasteiz* eta *Salvatierra/Agurain*-en kasuan izen zaharra —Gasteizen ondoko despoblaturen batena, oker ez bagabiltza— eta aspaldiko izena, Donemiliagako “reja”-n azaltzen dena (*Hagurahin*, 1025. Ikus *TAV*, 25 eta hurr.) dira. Azken honen euskarazko aldaera Lopez de Gereñuren lanean ageri den *Salbaterra* zen, *Billaba* eta *Billabona*-ren tankera berekoa. Orain, alabaina, berantegi da *Billaba*, *Billabona*, *Bitoria*, *Estella* edo *Salbaterra* erraten eta idazten hasteko, baina ez da berantegi *Errenteria/Orereta* parearen kasuan. Hemen *Orereta* berpiztu nahian dabilta batzuk, herriaren aspaldiko izena, euskarazkoa zelako, baina azken mendeotan *Errenteria* —aldaerekin— ibili izan da, eta guk ez dugu uste *Orereta* berpiztu behar denik, egun inork ezagutzen ez duelako, *Errenteria*-k euskararen marka kopetezurrean iltzatua daraman bitartean.

Bakarren batek erranen digu ea zergatik proposatzen dugun oraingo izena kasu honetan, baina *Labio*, *Taxoare*, *Zolia* eta lehengo mendeko edo lehenagoko beste batzuk beste kasu batzuetan. Hemen lehenik bada muga kronologikoa: *Orereta*, oker ez banago, aspaldikoa da, Erdi Arokoa, ez geroagokoa, eta *Labio*, *Taxoare*, *Zolia* eta abar, berriz, askoz berriagoak dira, XX. menderaino iritsi diratekeenak. Gainera, *Errenteria* eremu euskaldunean dago, eta izen honen transmisioa euskararen barrenekoa izan da, hots, erdal jatorriko etimo baten euskal bilakaeraren fruitu da, euskaldunek ibiltzen dutena, ez *Labiano*, *Tajonar*, *Zolina* eta beste bezala, hauek, etorkiak etorki, erdal aldaerak baitira, erdaldunek —ez euskaldunek— erabilitakoak. Beraz, eta ondorioz, etimoari garrantzi gutxiago eta euskarazko erabilerari garrantzi gehiago eman behar genioke.

Gizarte kontuei, faktore soziologikoei eman behar zaien garrantzia dela eta, ezin aipatu gabe *Bilbo*-ren kasua. Aldaera hau, jatorriz, Bizkaiko eta beharbada Bizkaitik kanpoko euskaldunek erabilia da eta oso oker ez bagaude badu aspaldidaniko tradizio idatzia. Forma laburtuxea da halere, *Bilbao*-tik aterra dena, eta goian azaldu irizpidearen arabera balirudike txarrestekoa dela, *Bilbao*-ren mesederako, honela, bide batez, arazo franko baztertzen baititugu, euskarazko eta erdarazko izenak, edo aldaerak, berdinak —bera— izatearekin (*Bilbao-Bizkaia Kutxa*-n adibidez). Guztiaz ere, guk ez dugu uste kasu honetan atzeranzko martxa sartu beharra dagoenik, hain zuzen ere *Bilbo* euskarazko izentzat erabilia zen eremutik kanpo erabat zabaldua delako, telebistan, irrastian,

testuetan, liburuetan... eta abarretan. Gure irudiz ordaindu beharrekoa gehiegi da irabaziko genukeenaren aldean.

Beste puntutxo bat arazo semantikoei dagokiena da. Hau gutxitan eskue-taratuko zaigu, baina behin edo beste aterako zaigu. Ezaguna da *Porquerizas de la Sierra* izena, itsusi iritzi eta aldatu zuen herriaren kasua. Nafarroan antzeko zerbait agitzen da erdaraz *Allo* deitzen den herriaren euskarazko aldaerarekin. Azken urteotan ikasi dugu, eta segurua da, herri honi euskaraz, Oteitzan eta, *Alu* erraten ziotela, euskal fonetikari dagokionez. Jakina, aldaera hau hilik dago, inork ez du erabiltzen alderdia aspalditik dagoelako erdaldunduta, eta orain ez dirudi arrunt itsusia den izena berpiztea egokia denik. *Alura noa*, *Alutik nator*, *Alukoa naiz*, *alutarra da halakoa...* eta beste erratea gogortxo egiten da, eta kasu honetan badirudi zuhurrena *Allo*-n gelditzea dela.

Iruditsua da, baina ez berdina, euskaraz normalak izan arren, ez baitira esanguratsuak, erdaraz parregarri samar gelditzen diren herri izenen kasua. Hemen Nafarroako *Adios* eta erdarazko *Labiano*-ren euskal aldaera den *Labio* sar ditzakegu, eta agian *Arribe*-ren erdal forma (eta izenaren jatorri hurbila) den *Arriba*. Jakina, erdaraz ez bageneki arazorik ez legoke, baina badakigunez gero *Adios*, *Labio* eta *Arriba* onartzekoak ote diren planteata daiteke. Nafarroan *Adios* eta *Arribe* onartu —maila diferentetakoak dira— ziren, baina *Labio* ez da Arangurengo udalaren gustokoa izan. Ez dakigu, ordea, azken kasu honetan arrazoiak semantikoak bakarrik izan diren, zeren *Zolia* ere ez da udalekoen gogokoa izan, baina bai ibar bereko *Taxoare*, agian lehenagotik (1990az geroztik) honela normalizaturik zegoelako.

2.5. Neologismoak: *Azkoien* alde batetik / *Ameskoabarren*, *Tafallerria*, *Debabarrena*, *Bidasoa Beherea* bestetik.

Inoiz edo behin urte batzuk dituen neologismoa onartu da, *Azkoien* adibidez, nolabaiteko hedadura bazuelako. Honelakoak oso bakanak dira, guk dakigula, eta ez gara horien oso zale. Besterik da toponimo zahar, ohiko bati atzean zerbait eranstea, halako kontzeptu bat adierazteko izenaren beharrean gertatzen garenean. Honelakoa da, adibidez, *Tafallerria* Nafarroan, erdarazko *Comarca de Tafalla* izendatzeko (hondar bilketa Tafallerri osoan bakarra da eta kontenedoreetan bertan erdarazko izena azaltzen da, eta honen ondoan, nahi bada, euskarazkoa ere ager liteke), edo *Debabarrena* eta *Bidasoa Beherea* Gipuzkoan. Ibarren arloan ere bada zenbaitetan “neologismo partzial” hauetakoren bat, Nafarroako *Ameskoabarren* eta *Ameskoagaien*, adibidez.

Mota honetako izenak sortzeko orduan uste dugu inportantea dela beti ere du zahar eta finkatuetan oinarritzea, hots, euskararen bidetik ibiltzea, eta gero, eta aurreko puntuarekin lotuaz, alderdi bakoitzeko berezko ezaugarriei ahal den neurrian eustea (hemendik *Debabarrena* baina *Bidasoa Beherea*).

2.6. Ordena kontuak, ibarren normalizazioan.

Maiz arazo hau eskuetaratzen zaigu: euskal elkarketaren arauen arabera lehenik ibarraren izena eman behar da eta gero herriarena ala alderantziz? Euskal elkarketaren arauen arabera badirudi lehenik ibarraren izena paratu behar dela (*Larraun-Etxarri*), baina hau bide seinaleetarako eta bestelako testuetarako eta ez da zeharo egokia, eskuarki herri izena lehenesten delako, ez ibarrarena. Hortaz, eta bigarren irizpide honen arabera, *Etxarri-Larraun* behar genuke. Kontua da ibar baten barrenean normalean ez dela ibarraren izena erabiltzen herria izendatzeko: *Uharte* Arakilen, *Donibane* Garazi aldean, *Hiriberri* Aezkoan... Kanpotik ikusita, alabaina, izen bera duten bi herriak bereizteko premia izaten da, Iruñean konparazio *Hiriberri* erran edo idatziz gero batek ez baitaki zein *Hiriberri*-z ari den mintzatzailea, testuinguru konkretu batean ez bada.

Arazoa, hortaz, *Larraun-Etxarri* edo *Etxarri-Larraun*-en moduko hurrenkeren artean bat aukeratzea da. Onomastika batzordean zalantzan izan ginen garai batez, baina azkenean bigarren ordenaketa aukeratu genuen eta geroztik, hautetsi beharra egokitzen zaigunean, lehenik herri izena ematen dugu eta gero ibarrarena. Egia da *Larraun-Etxarri*-ren moduko lekukotasunen bat badela, baina egia da, halaber, *Uharte-Arakil* eta *Donibane-Garazi*, *Donibane-Lohizune* sartuak ditugula euskaraz, hurrenkera hauen etorkia zein baita ere, eta beraz hizkuntzaren aldetik debeku gogorrik ez dugula. Praktikotasunaren aldetik, bestalde, egokiago dela irudi du aurren-aurrena herri izena ematea eta gero ibarrarena.

2.7. Bailara vs. harana, ibarra.

Beste gai irristakorra, ibar izenen normalizazioan erdarazko *val*, *valle*-ren euskarazko kidea hautatzea izan da. Hemen, jakina, tokian tokiko aldaera erabiltzen da, hots, Nafarroan *Valle de Erro* edo *Valle de Arce* errateko *Erroibar* eta *Artzibar* hautetsi ziren, bertan edo inguru euskaldunetan horrela erraten delako, eta *Deierri* euskaraz *Yerri* deitzen den harana izendatzeko (< *Deio* + *herri*). Beste batzuetan, berriz, ez da ez *herri* ez *ibar* eta ez *haran* ibiltzen ibarra izendatzeko; hau da, erraterako, *Baztan*-en kasuan.

Guztiz ere, zenbaitetan honelakoetan erdarazko *valle*-ren kide den izen bat sartu beharra izaten dugu, adibidez orain gutxi Nafarroako ordezkari zara iritsi zen *Ayuntamiento de la muy noble universidad del valle de Baztan* deizioan —itzuli beharrekoa ez zen erabat guk hemen ezarri duguna, baina bai honen antzeko zerbait—. Honelakoetan Onomastika batzordeak, gure tradizioa aztertirik, izen egokienak *ibarra* edo *harana* zirela ikusi zuen (*bailara*-k ez du tradizio handirik), biak azaltzen baitira hainbat ibar izenetan. Bien artean bat aukeratu behar eta *ibarra* aukeratu zen. *Harana*, hala ere, egokiagoa izan daiteke espezifikoa bere baitan *ibar* biltzen duenean, *Oibar harana*-ren kasuan adibidez, errepikapen itsusiak saihesteko, baina ez bestela.

2.8. *Ibarra*-ren deklinabidez.

Ibarra-ren erabilerak arazoak sor ditzake, ez baita gauza bera *ibarra* izen arrunta eta gorago aipatu *Erroibar* toponimoan aurkitzen duguna. Lehen kasuan *ibarrean*, *ibarretik*... deklinatzen da, baina bigarreanean *Erroibarren*, *Erroibartik*... ditugu. Zalantza guk moldatu elkarketa eta erabilera berrietan sortzen zaigu edo sor dakiguke, nahiz gure ustez jarraiki beharreko bidea aski garbi dagoen: *Eguesibar*-en tankerako toponimo "berrietan" *Erroibar*-en eredu erabil dadila, eta *Baztan ibarra*-ren modukoetan, berriz, *ibarrak* generikotzat hartu ea halakotzat erabil dadila.

BIBLIOGRAFIA

- EUSKALTZAINDIA: *Nafarroako Herri Izendegia (NHI)*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1999.
- MITXELENA (1987 [1983]): "Iruñea", *Palabras y Textos*, 187-193, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz.
- ONOMASTIKA batzordea: "Nafarroako toponimia nagusiaren normalizaziorako irizpideak", *Euskera*, 42, 1997-3, 653-666.
- SALABERRI ZARATIEGI, Patxi: "Criterios para la normalización de la toponimia mayor de Navarra", *FLV*, 79, 1998, 363-376.